

Dislexia: nola detektatu

Jabier Agirre

Medikua eta OEEko kidea



ARTXIBOKOA

Ume guztiek ikasteko gaitasun desberdina dute, eta, horregatik, batzuentzat errazagoak gertatzen dira idazketa eta irakurketa beste batzuentzat baino. Hala ere, desberdintasun horiek, logikoak izanik ere, ez digute aitzakiarik ematen arazoa ezkutatu edo bazterrera uzteko. Gure umeak zailtasun handi samarrak baldin badauzka ezagutza horiek eskuratzeko bidean, kontuz, litekeena da eta umea dislexikoa izatea.

URTE ASKOAN, IDAZTEKO ETA IRAKURTZEKO ZAILTASUNAK ZITUZTEN UMEAK alfertzat, gutxi saiaturtat eta gainerako umeak baino “tontoagotzat” hartu izan dira. Zorionez, okerreko uste hori atzera geratu da; gaur egun ez da horrela pentsatzen, horietako ume askoren atzean pertsona dislexiko bat egon daitekeelako, laguntza berezia behar duen ume bat, alegia.

Ikaskuntzari dagozkion beste asaldura askotan bezala, lehenbailehen detektatzea ezinbestekoa da, umeak arazorik izan ez dezan helduaroan gizarte mailan eta lan-munduan integratzeko.

Zergatik gertatzen da?

Dislexia erabat argitu gabeko enigma bat da oraindik ere, eta aditu guztiek ez dute onartzen arazoa existitzen denik ere. Esate baterako, zenbaiten ustez, dislexia egoteko ezinbestekoa da asaldura neurologikoak egotea.

Gaur egungo aditu gehienen iritzi-z, baina, ume batek oinarriko trebetasunak (irakurtzea, idaztea) ikasteko arazo serioak edukitzea, bada nahiko arrazoi ume hori dislexikotzat jotzeko, behitatz zailtasun horiek justifikatuko lituzkeen beste egoerarik agertzen ez denean. Eta diagnostiko hori ez bada



ARTXIBOKOA

Ume dislexikoen marrazkietan, koordinazio-maila eskasa dutela antzematen da.

garaiz egiten, ume horrek behar duen laguntza berezia atzeratu egiten da, edo ez da inoiz heltzen.

Dislexiaren arrazoi gisa, bi eratakoak aipatzen dira. Batetik, arrazoi neurofisiologikoak, nerbio-sistema motelago heltzen delako, eta, bestetik, gatazka psikikoak, umeak bizi duen giroko presio eta tentsioen ondorio gisa.

Lateralizazio txarra

Lateralizazioa esaten zaio umeak bere gorputzaren alde bat bestearen gainetik nagusitzeko bizi duen prozesuari.

“ezinbestekoa da lehenbailehen antzematea, gero gizartean eta lan-munduan integratzeko arazorik izan ez dezan”

Normalean, lateralizazioa ez da finkatzen 5 edo 6 urte arte, baina badira ume batzuk txikitatik argi eta garbi azaltzen dutenak alde baten nagusitasuna.

Eta dislexia-kasu gehienak nagusitasun hori ongi definitua ez duten umeetan gertatzen dira. Lateralitateak psikomotritatean eragiten du, eta, horregatik, lateralitatea gaizki definituta duten haurrak baldar samarrak izan ohi dira esku-lanak egiten, eta beren marrazkietako marra grafikoak koordinazio-maila eskasekoak izaten dira.

Psikomotritatearen asaldurak

Normalean, ume dislexikoek mugimendu baldarrak egin ohi dituzte. Erritmoa eta oreka falta zaie eta asko kostatzen zaie oin baten gainean egotea, salto egitea, bizikletan ibiltzea edo lerro baten gainean ibiltzea, esaterako.

Pertzepzioaren edo hautematearen asaldurak

Pertzepzio espazialean, gora/behera, edo aurrera/atzera kontzeptuetan akats ugari egin ohi dituzte. Eta horrek zailtasun nabarmenak ekartzen dizkie irakurri eta idazteko orduan.

Dislexia detektatzeko testa

Britainia Handiko Dislexiaren Elkarteak test hau proposatzen du dislexia detektatzeko. Galdera hauetako hiruzpalauri baiezeko erantzuna emanez gero, posible da dislexia-mailaren bat edukitzea umeak. Beraz, eraman medikuarengana.

8 urte egin aurretik

- Umeak oso nekez ikasi al zuen hitz egiten?
- Oraindik ere kostatzen zaio irakurtzea edo idaztea, eta zuri, guraso gisa, kezkatzeko moduko atzerapena iruditzen zaizu?
- Irakurtzea edo idaztea eskatzen ez duten beste gai batzuetan, umea bizkorra eta adimentsua iruditzen zaizu?
- Letra edo zifra batzuk alderantzikatuta idazten ditu?
- Batuketak eta kenketak egiten ikasi zuenean, beste umeek baino denbora luzeagoan behar izan zuen hatzen laguntza edota paperean markak egitea?
- Eta, biderketen taulekin arazoak ditu?
- Zailtasunak ditu eskuina eta ezkerrean bereizteko?
- Mugimenduak bere adineko umeenak baino baldarragoak dira?

8 urte egin ondoren

- Idazterakoan, akats ortografiko larriak egiten ditu, letrak “janez” edota ordena desegokian jarritik (pasatu-ren ordez, sapatu idatziz, adibidez)?
- Irakurtzerakoan oker egin eta bera ez da horretaz konturatzen?
- Sarritan ez da gai irakurri berri duena ulertu eta azaltzeko?
- Arbelean edo beste paper batean idatzita dagoena kopiatzea kostatzen zaio?
- Batzuetan, irakurtzerakoan hitzak jan edo salto egiten du, edo lerro bera bi aldiz irakurtzen du? Ez du atsegin besteen aurrean ahots ozenez irakurtzea?
- Biderketa-taulak gogoratzeko arazoak dauzka oraindik?
- Erraz desorientatzen da, eta eskuina eta ezkerrean nahasten ditu?
- Bere buruarekin konfiantza gutxi duela iruditzen zaizu, eta gutxi estimatzen duela bere burua?

Ume dislexikoen ezaugarriak

- Aditasun falta. Pertzepzioan dituzten zailtasunak gainditzeko egin behar duten ahalegin intelektualaren eraginez, nekea oso handia izaten da ume hauetan. Horregatik, irakurketa edo idazketa lehorrak iruditzen zaizkie, interesik gabeko kontuak, ez baitute ezer aurkitzen hainbesteko ahalegina merezi duenik.
- Ikasketekiko interesik eza. Batetik aditasun faltak, eta, bestetik, normalean bizi duten familiako eta eskolako giroak (estimulurik apenas eskaintzen diete) eskolako lanekiko interesa galarazten die. Horregatik, eskolako errendimendua eta emaitzak oso pobreak izaten dira.
- Moldatu ezina. Ume dislexikoak, espazioan eta denboran ongi orientatzen ez direnez, erreferentzia-punturik gabe sentitzen dira, eta, horren ondorioz, haien erreakzioak ez dira, normalean, beren adinekoei dagozkien bezain egonkorak. Eta, gezurra dirudien arren, konpentsazioko mekanismoko gisa, bere buruarekin gehiegizko konfiantza azaltzen dute (harrotasun-puntu batera iristen dena). Ondorioz, beren iritziak azken muturreraino defendatzen dituzte.

Ume dislexikoek arazoak izaten dituzte orekari eusteko eta nahiko baldarrak izaten dira.



ARTXIBOKOA

Nola antzeman dislexikoa dela?

Normalean, arazoa 6 urte ingururekin detektatzen da, adin horretan murgiltzen baitira, bete-betean, irakurketa/ idazketa prozesuan. Baina, hala ere, beharrezkoa da irakaslea eta gurasoak adi egotea hainbat zeinuren aurrean, ume horrek bere lagunak baino motelago ikasten duela konturatzeko. Dislexiaren edo haren moduko beste asalduraren baten zeinuak hauek dira:

- Oso-oso motel irakurtzea.
- Hitzak osorik irakurrik ordeztu, letra irakurtzea.
- Irakurri duena ez ulertzea.
- Puntuaziorik ez errespetatzea, esaldiari informaziorik ez ematea.
- Hitz baten barruko letrak alderantzizkatzea ("sapatu" esatea, "pasatu" esan ordeztu, adibidez).

Horrelakoak etxean atzematea ez da batere erraza, gurasoek beste erreferentzia bat behar baitute beren seme-alaba gainerako ikaskideekin konparatu ahal izateko. Izan ere, konparazio hori egin ezean, gurasoei normala eta bere adinerako egokia irudiko zaie beren umeak egiten duena, hala ez izan arren.

"dislexia ez da inoiz erabat sendatzen, beraz, tratamenduak iraunkorra izan behar du"

Tratamenduaren ildo nagusiak

Dislexiak modu eta forma oso diferentek har ditzakeenez, begi-bistakoa da tratamenduak erabat egokitua eta pertsonalizatua izan behar duela. Gaur egun terapiak saiatzeko dira dislexikoaren esku jartzen haren garunak behar dituen tresna guztiak, eta, hala, haurrak modu egokian prozesatzen du bere ikusmenak jasotzen duena. Horretarako, memorizatze trukuak erakusten zaizkio, edo irudi jakin bat hitz bati lotzen irakasten zaio.

Emaitzak ez dira berehalakoak izaten, noski, baina laguntza egokiarekin (psikologoaren eta pedagogoren lana, eta eskolako laguntza) umeak bere asaldura kontrolatzen ikasten du.

Ez da ahaztu behar oso garrantzitsuak direla diagnostiko goiztiarra eta prebentzioa. Lehen zailtasunak agertzen direla ikusi orduko, arazoari aurre egin behar zaio, gehiegizko izuak eta zigorrak albo batera utziz. Eta oso kontuan hartu behar da umeak dituen asaldura horiek ez direla sekula erabat "sendatzen"; beraz, tratamenduak iraunkorra izan behar du, eta umearen adinari egokitua. 